



GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48/27

HERRI KIROLAK eta GEU GASTEIZ Australian





Arabak aurrera egitearekin batera, gure ingurugiroa berreskuratzen dugu

Arabako Foru Aldundiak, gure ingurugiroa berreskuratu eta errespetatuz, etorkizunari begira burutzen ditu eginkizunak. Herrilanak ingurugiroan txertatuz.

N-1eko autobide berria eta Aiara bailarako ur-horniketa sistema dituzu adibide egokiak.

Diputación
Foral de Alava

Departamento de Obras Públicas,
Transportes y Medio Ambiente



Arabako
Foru Aldundia

Herrilan, Garraio eta
Ingurugiro Saila

Fundación Sancho el Sabio Fundación

geu GASTEIZ maiatza

INTSUMISIOA, zein da gasteiztarron iritzia...? 6. orrialdea

GASTEIZKO BERTSOLARI ESKOLAREN iragana eta oraina... 8. orrialdea.



Herri kirolak gure mugez harantzago: AUSTRALIA... 14. orrialdea.



kirolak, denborapasak, erreportaiak...

...eta askoz gauza gehiago.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



ALDEZ AURRETIK, eskerrak eman Geu Gasteikoei honaino «gure» aldizkaritxo hau bidaltzeagatik. Mila esker!

Hementxe nago, jakingo duzuenez, Langraitzeko espetxean Intsumisio-Asanbladak okupatu duen lokal berezi honetan. Jadanik badaramatzagu hiru hilabete dinamika berri honetan sarturik, eta emaitzak onak direla esatera ausartuko nintzateke. Egun arte, asko izan dira hemendik pasatu direnak intsumisioaren bazterrak zabalduz; bere presentzia, aldizkari, irratsaio eta eskutitzen bidez etorkizunerako apostua eraiki nahian. Gauzak horrela, «txabolo» hau indar eta ilusioz beterik dago, antimilitarismoz blai.

Edozein ekintza aurrera ateratzeko, nork bere papera ondo betetzea ezinbesteko bihurtzen da. Bakoitzak bere gaitasunaren arabera konpromezuak eskuratu eta gauzatu, eguneroko gerokea irrifarrez txukunduz, erantzunkizun beldurgarri hori banatu eta sakabanatuz, taldearen ezinbesteko lan hori berrindartuz nolabait.

Proiektu guztietan, ezeren aurretik, batasuna agertzen zaigu derrigorrezko tresna gisa. Ez, ordea, eztabaida gabeko uniformetasunak, ez ixiltasunak, ez elkarrekiko mesfidantzak, ez errespeto faltsuak emandako baretasunak; elkarrekin sortu eta finkatutako helburuak eta horiek lortzeko aukeratu ditugun bideak urratutako batasuna baizik.

SARRERA

ZEU, GEU AURPEGI ETA IZENIK GABEKO PROTAGONISTAK

Horretarako, zuk zeure buruaren jabe izan behar duzu guk geurearena izan behar dugun neurri berean, barneratu behar ditugun baloreak inolako «mitoengan» ezarri gabe. Guk geuk, guztiokin batera, izan behar dugu gure «utopia» horiei gaurkotasuna eman behar diegunok. Badakit murgilduta gauden «idolo», eredu eta «mitoz» betetako gizarte honetan zaila izan daitekeela aurpegi eta izenik gabeko, protagonistarik gabeko giza-proiektuaren geroz sinestea, baina hortxe dago koxka! Protagonistak bilatu baino, protagonista bilakatu. Guk geuk izan behar dugu geure buru izkutatu orde, gauzak aldatzeko lehendabiziko pausuak eman behar ditugunok, ezeren truke, gelditasuna apurtuz. Hori bai! purismorik gabe, nork bere buruari behintzat bere ezintasunak, kontraesanak eta ahultasun gaingaitz guztiak aitortu eta onartuz.

Hiri honetako musika talde batek zioenez, «azken finean gizaki hutsak gara». Zorionez! Baina, nere ustez, horrek ez du esan nahi ezer ez egiteko aitzaki ederra aurkitu dugunik, ezta etsipenean erori garenik ere. Irtenbide hori erosoegi agertzen zaigu, gizaki batek bakarrik dena aldatzeko duen ezintasunaren aurrean. Aldiz, denok bat eginez gero, zer edo zer aldatzeko ahalmena izango dugu.

Nire euskara irakasle ospetsu eta ibiltari batek egunero esaten zigunez, «ekin diezaio-gun ba lanari!

Luis Zulaika

Langraitzeko gartzelan espetxeraturik dagoen intsumiso gasteiztarra

GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon
Aldizkaria

1691 Postakutxa
Tfnoa 26 25 92

GEU

elkartearen babesarekin
5.000 Aleko Tirada

Lege-Gordailua VI-582/92

ISSN: 1133-0988

Erredakzio-batzordea: Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri

Kazetariak: Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Ismael Diaz de Mendibil, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Olatz Irizar, Miel Anjel Elustondo

Hizkuntz egokitzaila: Inaxio Lopez de Arana

Komikia: Iñigo Sarasola **Maketazioa:** Iñaki San Pedro, Alex Badillo **Publizitatea:** Rakel Peña, Martin Rezola

Argazkilariak: Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzu, Jon Onaindia

Kolaboratzaileak: Txipi Ormaetxea

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati)

GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik

BERTSOAK



DANI KASTAÑO

errenta aitorpena

I
Ondasunaren banaketa da
zergen helburua berez,
asko dutenei pixka bat kenduz
gutxi dutenei emanez.
Halaere mundu kabroi honetan
jokoa dabil aldrebes:
Pobreek zergak etsai dituzte,
aberatsek, aldiz, babes
Mario Conde ta Luis Roldani
negatiboa irten baietz

II
Kondairak zeukan, Sharwood basoan
zerga kobratzaile fina
Haundiei kendu, txikiei eman,
halaxe zeukan dotrina.
Hogeigarrengo mendean, baina,
ez da gertatzen berdina
Solbes, Robin Hood moderno honek
kontrakoa dauka griña
pobreei ostu ta aberatsei
banatzen die botina.

“ Maiatza erdiz hotzak hila eta erdiz beroak errea”

“ Maiatz hotz urtea hotz”

“ Ogi orde dabila Maiatza su-eskian”



BESTE URTEETAN BEZALA,
aurten ere, Arabako Haur Kantu Txapel-
keta antolatuko du bosgarren aldiz Euskal
Kantuzaleen Elkarteak.

Aurtengo edizioa Oionen izango da
ekainaren 11an eta beharrezkoa izanez
gero Gasteizen egingo luketen finalerdi bat
ere prestatu dute dagoeneko.

Honelako lehiaketa bat Araban eginez
euskal kantagintzarekiko zaletasuna
berpiztu nahi izan dute, herrialdean zehar
dauden kantari herritar eta euskaltzaleak
bertan parte har dezaten animatuz.
Hurrek, txapelketa honetan kanta zahar
eta berriak kanta ditzakete, beti ere herriko
eran. Kantariak banaka zein taldeka aurkez
daitezke; musikarekin edo gabe.

Iaz egin zen bezala, aurten ere txapelketa
gaztetxoengana zuzenduz, euskaldu
gazteen hizkuntza finkatu nahi izan dute.
Izan ere, ikastola edota eskolatik kanpo
antolatzen diren ekintzetara hurbiltzeko
era bat izan daiteke.

Antolatze-lanetan Bagare (Gasteiz) eta
Betagarri (Kanpetzu) elkarteak aritu dira
Gasteiz eta Aguraingo ikastoletako zenbait
musika irakasle eta Labarka, Oion eta
Izarrako euskal taldeekin atera.

Arabako haur kanta txapelketa

Izena eman edota informazio gehiago
nahi izanez gero Bagare euskaltokira joan
zaitezke, honako helbide honetara:

BAGARE

Kutxilleria kalea, 62 Gasteiz
Tfnoa: 25 10 84

Dena den, hona hemen txapelketaren
zenbait nondik norako:

- Izena emateko epea:
Maiatzaren 6a baino lehen Bagaren
bertan
- Zenbat kanta?
Kantari bakoitzak kantu bakarra
aurkeztu behar du, gehienez 4
minutukoa
- Nola epaituko da?
Doinua, hitzak, boza eta trebetasuna
hartuko dira kontutan.
- Zenbat maila?
Bi maila ezberdinduko dira, txikiena
(1., 2., 3. eta 4. mailak) eta
gaztetxoena
(5., 6., 7., 8. mailak)
- Saririk?
Sariak arlo bakoitzeko (bakarka,
binaka eta taldeka) lehenengo eta
bigarrenen emango zaie.

anima zaitetz!

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



★
IZ
TABERNA
RA
JATETXEA

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



Maiatzak 10.:Eratzun eklipsea..

Ozeano Pazifikoa eta Iparramerika igaroko du zeharretara, Atlantikoa zeharkatu eta Marokkoren amaituko da. Arratsaldean ilunabarrean ikusi ahal izango da Estatuan zatizko eklipse gisa.

Maiatzak 25: Zatizko ilargi-eklipsea.

Ondo ikusiko da estatu osoan.

Ilargi-ilunaldi gorena 3,30etan izango da.

PASA DEN HILEAN esan bezala, maiatzean bi eklipse izango ditugu ikusgai. Maiatzak 10 eguzki-eklipsea (eratzun-eklipsea) eta hilak 25 ilargi-eklipsea.

Eguzki-eklipsean gure ilargia eguzkiaren aurrean (hilberria) eta deklinazio-paralelo berean jarri eta eguzkiaren fluxua geldiaraziko du. Ilargia bere puntu gorenean egongo da eta kontuan izanik ilargiaren itzalaren luzera 373.000 kmkoa baino ez dela eta Lurra eta ilargiaren arteko aldea 415.000 kmkoa

Zerutik lurrera begira

dela, ilargiaren itzala ez da Lurraren azaleraraino helduko. 42.000 km.tara geratuko da Lurraren gainetik.

Horrela, Lurra ilargiaren argitzaletik baino ez da pasako, ilargiaren argitzala ilargi-diametroaren parekoa dela. Egoera berezi horretan, eklipse osoa ikusi nahi izanez gero, ilargiaren itzalaren erdigu-nean egon beharko dugu. Kokapen horretatik ilargi-azalerak ezingo du eguzki-diskoa erabat estali eta eguzkia, eratzun dizdiragarri gisa agertuko da disko beltz baten inguruan. Horixe da, alegia, eratzun-eklipsea.

Goren ilunaldian iluntasun haundia nagusitu eta Lurraren nortasun kosmikoa zeharo aldatzen da. Hegaztiak kilikaturik egiten dute hegan, gau-animaliek beren aterpetatik irten, harrapakariak uluka eta egun-animaliak lotan hasten dira loreak ixten diren bitartean.

Ezpairik gabe, eklipseek Lurraren elektromagnetismoari eta gizakien biomagnetismoari eragiten diote, fisikariek askotan neurtu dutenez. Aintzineko eta gaur eguneko astrologoen esanetan, batez ere, itzalpean geratzen den lur-esparruak jasotzen du eklipsearen eragina. Alde

horretatik, Iparraldeko hemisferioak jasoko du gehienbat oraingoaren eragin biziena. Eklipse-egunetan hainbat guda eta gatazka eten egin direla kontatzen digu historiak, eta pertsona ospetsuen jaiotzaren berri ematen digu. Ikus dezagun bada.

Yugoslavia-ohian, dirudienez, egoera konpondu egingo da, modu txarrean konpondu ere. Izan ere, azkar ez badatoz senera, maiatzaren 5-10 bitartean NATOk eraso egingo die serbiarrei eta oraingo lur okupatuaren % 20 besterik ez die itzuliko, errusiarren isiltasuna lekuko.

Italian eta Frantzia giroa lasaitzen den bitartean Espainian politika-ustelkeria ez da geratuko eta kasu berriak azalduko dira (PSOE, Convergencia i Unio,...). Azpimarratu behar da PSOE jota dagoela eta deuseztapen-bilakaera aurrera doala, gutxi barru (agian urte honen bukaera-aldean) laupabost alderditan zatituko delarik nagusitasuna galduz kontserbado-reen onerako.

Eklipse hau, egia esan, lau bost urte barru gertatuko denaren jaikigarria edo aitzindaria dugu. Orduan ez da atzera joaterik izango.

Iñaki Gauna


**ZAILDU
EZAIGUZU**



**"DISEINU ESCLUSIBO ETA
KALITATE BIKAINETZKO
BETAURREKOEN BILA NABIL"**
MULTIOPTICA Sen Sara eta Berto
eustura eskusibok

**"GARANTIA OSOA
ESKATZEN DUT"**

MULTIOPTICA Sen garantaia
txartelak EUROPAko
3000 optiketan balio dizu.



**MENDIA OPTIKAN
ERRAZTUKO DIZUGU**

2.850 pta.



MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
Andre Maria Plaza Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

**"ETA PREZIO ONA,
JAKINA"**
2.850 pta. bakarrik.

Intsumisioak epaiketei eta espetxeari lotuta dagoela dirudi azken bolada honetan. Egia da intsumisook epaitzen gaituztela gero

espetxera eramateko. Hala ere, horretaz sakonduz gero ikusiko dugu hiruruak elkarri lotuta badaude ere, lotura horrek haien arteko haustura eragingo duela gero eta hurbilago dagoen etorkizunean.

GUK INTSUMISIOARI ekin diogu mundu hobe bat lortzeko asmoz. Gaur egun dagoen aberastasunaren banaketa lotsagarria mantentzeaz arduratzen diren armadak deuseztatzeko. Hego eta Iparraren arteko desberdintasunak, samurtu ordez, areagotzen dituzten egoerak salatze-ko (armen salmenta eta armak saltzeko aberatsek eragindako gerrak adibidez).

Intsumisioaren bidez, nork bere kabuz pentsatzeko ahalmena eta pertsonen baloreak bultzatuko dituen hezkuntza lortu nahi dugu, hau da, beren desadostasuna agertzeko gai diren pertsonak, nagusiak agindutakoa besterik egitera ausartzen ez direnetakoak izan gabe.

Ez dugu gustoko, munduan zehar herriak beste herri indartsuagoek zapalduta ikustea -are gutxiago geurea-. Eta, etorkizunean besteak menperatzeko indarra inork ere ez erabiltzea espero dugu, baita herrien eta pertsonen arteko arazoak elkarriketaren bidez konpontzea ere.

Agintariek ez dute hori gustoko. Gainera beraien onerako hain ongi montatuta duten gizartea alda daitekela ikusten dute. Onartezina da; beraz, zigortu egin behar dute jendeak gure ideiekin bat egin ez dezan, intsumiso egin ez dadin.

INTSUMISIOA !

GASTEIZEN



Zorionez, hori ez dute lortu eta gero eta intsumiso gehiago dago. Hortaz, hasieran bakar batzuei soilik ezartzen zitzaizkien zigorrak orain jende askorengana zabaldu behar izan dituzte, lehengo asmo bereberekin, gero eta jende gehiago epaituz eta espetxeratuz.

Horrek ez gaitu kikildu ordea, eta gaizkiletzat agertu behar genuen epaiketetan gure mezua zabaltzeko aukera aprobe-txatu dugu. Era berean, jendeak gurekiko elkartasuna argi adierazi digu, epaiketeta-joan diren lekuko eta kalera protesta-tzera atera den jendearen bitartez.

Gizarteari gure mezua zabaltzea da epaiketek guretzat duten zentzua, baina bertatik ateratzen den epaiak zenbait intsumiso espetxera bidaltzen zuen bitartean beste batzuei, ordea, hilabete gutxi batzuen zigorra ezartzen zien espetxera ez joateko aukera emanez. Gure erantzuna ezin argiagoa izan da, denok joango gara inor joan behar ez izan arte.

Guzti horrek badu bere arrazoiketa. Intsumisook urrats bat eman dugu ondo-rio guztiak gure gain hartuta. Epaitu eta gartzelaratuak izan/izango gara, horren bitartez gauzak aldatzeko itxaropenarekin. Gu giltzapean egotea ez da alferrikakoa izango, gizartea hausnartaraziko duen eragingarri bat ekarriko baitu. Gainera, gure egoera aitzakiatzat hartuta bakoitzak bere neurrian (baina guztiok batera) intsumisioari tinkoago ekingo dio.

Azken finean, gartzelara joango gara; baina, jendearen presioari esker eta guztion laguntzaz, gu barrutik eta zuek kanpotik, geroan inor ez espetxeratzea lortuko dugu; epaiketak bertan behera geldituko dira eta intsumiso eta gizartearen desobedientziaren bidez, mundu hobe bat lortuko dugu.

Sergio Novoa

Hilabete honetan epaituko duten gasteiztar intsumisoka



GUREA
jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

MIKO
izozkiak

inesta KALEA MINTZO

intsumisioaz



JOSE ANGEL ODIAGA
Irakaslea

1. Oso gaizki. Orain intsumisook kartzelera joatea erabaki dugu estrategia hori apurtu eta protesta egiteko.

2. Nik jadanik aukeratu dut: intsumisioa naiz. Orain kanpaina bat egiten ari gara PSS delakoaren aurka. Guk ez dugu ez soldaduzka ez PSS delakoa nahi.



IÑAKI ORDOÑO
Funtzionarioa

1. Oso gaizki. Estatu demokratiko batean nork bere aukera egiteko eskubidea izan behar du.

2. Ez dakit, beharbada, PSS delakoa. Soldaduzkara ez nintzateke joango. Hara joan nahi duenak soldaduzka normala boluntario gisa egin beza edo ejerzito profesionalean sar bedi.



LUCIANO PEREZ
Jubilatua

1. Zentzurik gabekoa. Ezin da inor espetxeratu soldaduzka ez egiteagatik.

2. Ni soldaduzkara joango nintzateke berriro, pozik gainera, hor asko ikasten da eta.



MARI MAR HERRERA
Langabea

1. Gaizki. Ezin da inor derrigortu ezer egitera bere gogoz kontra badoa.

2. Intsumisioa, noski. PSS izenekoa egiten baduzu soldaduzka ere onartzen ari zara.



MARIA JOSEFA
FERNANDEZ
Langabea

1. Ni intsumisioaren alde nago. Ez dago eskubiderik intsumisioak espetxeratzeko.

2. Intsumisioa, dudarik ez. Ordezko Zerbitzuak lanpostuak kentzen ditu; orain langabe piloa dago, gainera.



MARIA TERESA GIL
A. T. S.

1. Ez nago ados. Askatasunez erabaki beharko litzateke soldaduzkara joatea ala ez.

2. Ordezko Zerbitzua. Zerbait egin behar izatekotan, hor behintzat jendeari laguntza ematen diozu.

Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi"

Badakizu pertsona batzuk kartzelan daudela intsumisioak izateagatik. Zer iruditzen zaizu hori ?

Soldaduzka egiteko garaian bazina, Ordezko Zerbitzu Soziala, Intsumisioa ala soldaduzka normala aukeratuko zenuke ?



ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA
EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak
ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

Gasteizko Bertsolari Eskola


etorkizunerako harrobi oparoa


Zigor Enbeitak bere bigarren txapela eskuratu du Prudentzio Deuna Estibalizko Ama V. bertso sarian. Zigorren atzetik Oihane Perea eta Dani Kastaños sailkatu ziren Arabako bertsolaritzan gazteek duten nagusitasuna agerian utziz. Hiru gazteok Gasteizko Bertsolari Eskolak eman duen fruiturik onenak direla esan daiteke. Eskola ondo ezagutzen dutenen esanetan, ordea, eginiko lanaren ordaina datozen urteetan ikusiko da "bertsolarien harrobi ona baita".



EUSKARAREN ARLOAN lan egiteko gogo handia zeukan Gasteizko euskaldun berri talde txiki bat Udako Euskal Unibertsitatera joan zen 1983an, kulturaren alorren nondik norakoak gertutik ezagutzeko asmoz. Han, apurka berpizten ari zen bertsolaritzaren berri izan zuten eta Gasteizen ere «horrelako zerbait egin genezakeela pentsatu genuen», gogoratu du Gasteizko Bertsolari Eskolako irakaslea den Xabier


liburudenda
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ

J A T E T X E A

Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ


argazki estudioa
Olagibel, 64
Telefonoa 27 50 85

Rico bertsolariak. Bertsolaritzaren giroa ondo ezagutzen zuen norbaiten laguntza behar zutela ere ohartu ziren lagun hauek eta Abel Enbeita oso hurbil zutela aprobetxatuz «bere etxera joan eta lanean hastea proposatu genion». Abelek, noski, baietza eman zien, «pozik eman gainera, aurretik horretan lan egiteko gogoia neukan eta», esan du bizkaitarrak. Horrela hasi zen Gasteizko Bertsolari Eskolaren historia.

Ordutik hona dozenaka bertsozale pasatu dira eskolaren egoitza den Txusta tabernatik. Izan ere, Txustan biltzen dira ikasle eta irakasleak eta astean bi orduz aritzen dira noizbait Egaña edo Euzkitzek bezala kantatzeko ametsa egia bihurtzeko ahaleginetan.

Eskolak gorabehera handiak izan ditu urteetan zehar Alabaina ikasturtero bi talde eratu ohi dira: hasi berriena eta bapateko bertsoak osatzeko gaitasuna dutenena. Hala ere, aurten jende ugari hurbildu da eskolara eta hiru maila sortu behar izan dute: «hasierakoa, erdi maila eta beteranoena; horrez gain, Zigor Enbeita haurrekin ere aritzen da lanean», azaldu du Xabik.

“Aurten, lehendabizikoz hiru talde osatu ziren biren partez.”

ABEL ENBEITA Arabako bertsolaritzaren aita



eta etxean ere aritzen nintzen semeekin».

Arabak zor handia du Abelekin herrialde osoan zehar bertsolaritza irakasten eta zabaltzen egin duen lan izaugarria dela medio. Gasteizko eskolan lan egiteaz gain, Arabako ikastola guztietan ere ibili da Abel irakasle, haurrentzako paper lehiaketan antolatzaile, eta abar. Oraindik ere, ibiltzen da material banatzen du, Aguraingo ikastolara joaten da astean behin baina jada ezin dela lehen bezala ibili aitortu digu tristura puntu batez: «Gauzak aldatu dira eta orain ez didate ez bidaiarik, ez ezer ordaintzen; horregatik ezin naiz, lehen bezala, ikastola guztietara iritsi; kobratu gabe eta neure kontura, ez dut lehengo gauza guztiak egiterik»

BIZKAITAR BATEN inguruan sortu eta indartu da Arabako bertsolaritza. Duela 11 urte bertsozale talde batek eskatutako laguntzari ez zion muzinik egin Abel Enbeitak, «beren proposamenak arlo horretan lan egiteko ateak zabaldu zizkidan, baietz esan nien, pozik gainera!»

Abelek arlo horretan lan egin zuen Gasteizko Eskolaren abenturan sartu aurretik: «Nik lehendik esperientzia neukan; Muxikako Bertsolari Eskolan

Bertsolaritzan tradizio handia duen familiakoa da Abel. Semeak txikiak zitueneke lanaren emaitzak argi ikusten dira egun. Zigor, seme zaharrenak, Arabako txapela jantzi zuen iaz eta aitak bezala bertsolaritzan lan egiteko presuntasuna agertu erakutsi du: duela gutxi Izarrako eskola sortu zuen eta, aitak dioenez, «oso gustora dabil». Enbeitaren dinastiak lanean dirau oraindik eta luzaro.

MAIATZAREN
28an

PLAZA
BERRIAN

etor
zaitez!



IKAPERIA

• arratsaldeko
Setatik aurrera

- ARTESAUAK
- HERRI KIROLAK
- TXAPELKETAK
- TXARANGAK
- JOLASAK
- /.../



“ Bertsozaleena ezezik euskaltzaleen topagune izan da beti Bertso Eskola. ”

Euskaltzaleen topagune

Urteen poderioz plazaz plaza aritzeko itxaropenaz diharduten gaztetxoak, unibertsitateko irakasleak, euskalte-gietatik igaro ondoren beren euskara aberastu nahi duten lagunak... guztien topagune bilakatu da bertsolari eskola. Eta guzti hauek laguntzeko asmoz Xabi, Abel eta Zigor aritzen dira irakasle.

Arabako bertsolaritzaren maila apala dela onartzen dute guztiek, baina «duela 11 urte baino hobeto» dagoela nabarmendu dute. Eskolako lagunak ez dute kexu agertu nahi, baina «agian, Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak Arabako bertsolaritzari kasu gehixeago egin beharko litzaiokeela» uste dute, eta baita Arabako txapelketari berari ere: «Iaz ez zen Elkarteko inor etorri eta horrek min egiten du, batez ere horrenbeste lan egin eta gero. Badakigu Arabako bertsolaritzak ez duela Gipuzkoak haina indarra. Horrexegatik, hain zuzen ere, merezi du arreta handiagoa»

“ Bertsozaleetasuna Araban inoiz baino indartsuago dago. ”

Arabak etorkizun oparoa izango duela ziurtatzen du Eskolaren harrobiak; gaztetxoak gero eta hobeto aritzen dira. «Iazko txapelketan jadanik gazteek beterranoen tokia hartzeko prest zeudela erakutsi zuten», azaldu digute Xabik eta Abelek. Gainera, Izarra eta Laudion ere bertsolari eskolak sortu dira bertakoen artean bertsozaleetasunak gora egin duela. Urtean hamar bat saio antolatu ohi dira Gasteizen eta «jendeak gero eta hobeto erantzuten du».

Leire Lopez de Aberasturi

Zigor Enbeitak bigarren txapela lortu du

V BERTSO SARIA

BABESLEA: ARABAKO FORU KULTURA SAILA



PRUDENTZIO DEUNA-

ESTIBALIZKO AMA V. Bertso Sariaren txapela lortu zuen Zigor Enbeitak Floridako Kultur Etxean maiatzaren 24ean egin zen finalean. Txapeldunak 357,5 puntu lortu zituen, bigarren izan zen Oihane Perea baino bi gehiago. Dani Kastaños eta Rikardo Gonzalez de Durana sailkatu ziren ondoren.

Bertsolariek nahikoa berdindurik bukatu zuten finalurreko kanporaketa. Aldiz, pronostikoak Zigor eta Ohia-

neren aldekoak ziren eta ez zuten huts egin. Horrela iaz susmatutako gazteen gorakada egiaztatu da aurten; finalean aritutako sei bertsolarietatik bost hogeitalau urtez beherakoak dira.

Abel Enbeitak egin zituen saioaren gidaritza lanak eta urtero bezala Trino Azkoitia, Abel Muniategi, Jon Lopategi eta Joanjo Respaldiza izan ziren epaileak.

Zigorrek gartzelako lanean botatako bertsoa jarraian:

Baboak gaudela badiote
berrehun mila inguru
ni bezelaxe gazte gehienak
egongo dira seguru
bizitzak ez digu ezer eman
badugu hainbat apuru
horregatikan gazteok gero
ta gehio edaten dugu

Azken sailkapena honela geratu zen:

Zigor Enbeita 357,5 puntu
Oihane Perea 355,5
Dani Kastaños 330
Rikardo Gonzalez de Durana 318



Esti Breñas



EUSKALTASUNEAN LAGUN

-Ambaton jaioa, Ekuadorren, 1969ko urriaren 17an. Libra, hortaz: eta libra esan ordukoxe, «hoberenak» dio. Honenbestez, ia-ia egunero begiratzen dio. Sinisten du horoskopok agintzen duen zortean..

-Ambaton bizi izan zen bi urte bete arte. Geroztik Gasteizen beti. Judimendin bizi da. «Gasteizko auzorik hoberena», bere ustez.

-Amarekin, Mikelekin eta ahizpa dituenekin bizi da: Amaia lehenena, Idoia hirugarrena. Izakeraz desberdinak baina ongi konpontzen omen dira.

-Geografia-Historiak ikasia da. Egun, aisialdi-begirale dugu eta euskara irakaslea da AEKn.

-Musika entzutea du afizio: euskal musika-Mikel Laboa adibidez-, Cubakoa -Nova Trova-, new age, rocka... Gustoko du irakurtzea ere. Lagunekin egotea, kirola.

-Areto futboleko jokatzen du: «hori da gehien gustatzen zaidana», «Decoración Zuriñe» du talde. Denetarik jokatzen du: nola aurrean hala atzean. Javier Santiago entrenatzaileari galdetu eta oso jokalaria ona dela dio. Dena den atzelari jokatzen eta kontrarioak mareatzeko -izkin egiteko-, joera makurra omen du. Arabako selekzioan dugu. Merezi du aipatzea: futboleko, nobleagoak dira neskak mutilak baino.

-Begi pare ezin ederragoa du. «Begiratu» baino ez omen du egiten. Ez dago erraz Esti Beñasi horretan sinesten.

Miel Anjel Elustondo

ORRIALDE HONETAN, hilabetero agertzen den pertsonaia, oso berezia da guretzat. Bera da aldizkari honen helburua: Gasteizko euskaldun bat, edozein, zu zeu ere izan zaitezke.

Galdera: Duzun biziorik handiena?

E. Erantzuna: lo egitea

G. Bertutea?

E. Jendearekin erlazionatzea. Eta pozik egoten saiatzea. Zaila da baina... bizitzak aukera polit asko ematen dizkizu eta aprobetxatzen jakin behar dugu.

G. Famatu adiskide baten izena?

E. Juan Vallejo mendizalea, Borja Arrillaga, Aitor Gorasabel Su ta Garrekoa

G. Zer eskatzen du herriak?

E. Amnistia

G. Zer eskatzen diozu bizitzari?

E. Poza

G. Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria ala Vitoria-Gasteiz?

E. Vitoria Gasteiz, ohituraz

G. Jeniorik bai?

E. Bai baina gutxitan ateratzen dut

G. Momentuko kezkarik handiena?

E. Neure osasuna. Eta herri honen etorkizuna. Lana. Jendea pozik ikustea...

G. GEU elkartearen berririk?

E. Bai kezkatzen naiz. Interesgarria deritzot

G. Egunkari baten izena?

E. Euskaldunon Egunkaria.

G. Telebistarik?

E. Gutxi, Programa bat? «Doctor Livingstone, supongo».

G. Oporrak non eta zertarako?

E. Ertamerika nahiz Hegoamerikan, ezagutzeko.

G. Etxeko lanak nork?

E. Guztion artean, txandaka eta.

G. Nongo euskara duzu?

E. Poupourria daukat. Giputxekin ikasi nuen gehien bat. Gero, batua

G. Zerk ateratzen zaitu zeure onetik?

E. Hainbatetan lotsatia izateak. Horrek moskeatzen nau. Gauzak gaizki egiteak; aurretik planeatutako zozkerk porrot

egiteak, haserratzek, gaizki sentitzen naiz bronkaren ondoren.

G. Jaki goxoren bat?

E. Paella: entsaladak, patata tortila, fruta, gazta, babarrunak,... Arraina haragia baino nahiago.

G. Filmerik?

E. «El Piano»

G. Aktore izenik?

E. Pilo bat: Holly Hunter, Karra Elejalde edo nire ezagun batzuk: Natxo, Ana Rita, Migelon, Agus... Gasteizkoak

G. Txikitako oroitzapen ederren bat?

E. Askok. Oso ondo pasa nuen. Behin, Ekuadorretik etorri berritan, elurra egin zuen. Ahizpa eta biok, esnegaina zelakoan elurra jaten eta jaten hasi ginen aurpegia eta eskua erabat gorri eta izoztuta geratu arte

G. Gorputz-atalik politena?

E. Begiak

G. Ametsik?

E. Nagoen moduan jarraitzea futbol salarekin. Denbora gehiago horretarako. Bestelakoak? independentzia herri honentzat.

G. Gizarte arloan, zer aldatuko zenuke?

E. Dena. Jenderaren pentsamoldea, helburuak, baloreak: individualismoa suntsitu eta elkartasuna goratu

G. Denbora izanez gero, zer edo nora?

E. Ordu batzuk neure gauzak egiteko: paseatu, bidaiatxoak egiten, gizarte hau aldatzene er ordu gehiago emango nuke

G. Libururen bat?

E. Eduardo Galeanoren «El libro de los abrazos» eta orain irakurtzen ari naizen beste bat, Silvio Rodríguez buruzkoa, Joseba Sanzena.

G. Zer mugiarazen zaitu?

E. Euskara eta Herriak, gehien eta betidanik

Gizateria
gizateri
denetik
txukun eta
mamarru
izateko grina

izan dugu.

Gehienetan soineko
eta kanpoko

apaingarrietan

isladatu nahi izan

dugu dotorezia hori.

Tautaiak betidanik

izan duten

arrakastan

erreparatzea

bestarik ez da. Gai

honen inguruan argi

zipristin batzuk

eman diezazkiguten

gure hiriko Kutxilleria

kalean ireki berri


duten ASGARD

dendara joan gara.

Jarraian bertan

jasotakoa

Susana Calleja & Itziar Mtz de Santos



Tatuaia bat egitera ausartzen al

AZKEN BOLADA HONETAN tatuaiaik modan jarri badira ere aspaldian sortutako gauza dugu, historiaurrean asmaturikoa. Gaur egungo leinuetan oraindik dirautela esan dezakegu, beraz ez dira gure gizarte modernoan soilik ezagutzen.

Orain arte tatuaiek garrantzi gehiago izan dute atzerrian, hala ere Euskal Herrian XX. mendean bultzada haundia izan dute.

Tatuaien esanahia era askotakoa izan daiteke, zenbaitentzat tatuaia sinbolo bat da, adibidez zerbaitenganako identifikazioa edo sistemaren aurkako aldarrikapena ere. Beste batzuk, aldiz, gustokoa dutelako egiten dute.

Beraz, esanahi guzti hauen arabera

marrakzi desberdinak egiten dira; gehienetan tatuaien artean animaliek leku berezia dute, lehoia, arranoa, eskorpioia, otsoa, herensugea eta pantera nagusietarikoak dira. Marrakzi zerrenda zabalean beste motatako irudiak ere agertzen dira: bihotzak, loreak, kateak, emakumeak, itsasneskak,... Tatuaien katalogoa zabala bada ere, irudimena erabiliz zerorrek marrakzia egin dezakezu ondoren tatuaia bihurtzeko.

Hamasei kolore desberdin daude, eta horien arteko nahasketak ere erabil daitezke. Gehien erabiltzen direnak beltza, berdea, gorria, horia eta urdina dira; dena dela, kolorearen hautaketa marrakzi eta bezeroaren gustoaren arabera izaten da.

Tatuaiaaren tamaina zehaztezina da, marrakzi txiki bat izatetik gorputz osoa estaltzera heldu daiteke. Hortaz, erabili behar den denbora ordu laurden batetatik egun batzuetara luzatu daiteke. Hori

kontutan izanik, prezioa ere aldatzen da, tatuaia batek 5000 pezetatik 50.000ra balio dezakeelarik.

Gorputzeko atalei dagokienez, edozein lekutan egiten diren arren, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasuna nabaria da; gizonak besoetan egiten dituzten bitartean, emakumeek berriez, ditiak eta bizkarra aukeratzen dituzte tatuai-leku.

Aipatzekoa da bi motatako tatuaiaik daudela: begetalak, hau da epealdi jakin baten buruan kentzen direnak, eta betirako direnak. Azken hauek ez dakarte inolako arriskurik tinta txinarekin egiten ez diren bitartean, nahiz eta jende askok azalarentzat kaltegarriak direla pentsatu.

Teknikari dagokionez, egin beharreko lehenengo gauza marrakzia kalko bihurtzea da, makina berezi baten bidez. Gero, kalkoa aukeratutako gorputzeko atalean itsasten da gero marrakzia egiteko eta



**JATETKEA
ERRETEGIA**

OKELA ETA
ARRAIN
ERREAK

Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-



izozkiak

ATZOKO ETA GAURKO UDAL BANDA

LEHENDABIZIKO UDAL BANDA

Gasteizen 1894. urtean sortu zen, bere zuzendaria Alejandro Jimenez Elorriaga izan zelarik. Arazo ekonomikoak zirela medio, 1905ean desegin zen eta ez zen berriro osatu 1916 urtera arte. Tarte horretan «Santa Cecilia» Banda eratu zen izaera pribatua zuena berau. halere, kontzertuak ematen zituen Gasteizko Udalak kontratatua. Argazkian, «Santa Cecilia» banda ikus dezakegu. Erdian, mahukan ezaugarria duelarik, Jose Fresno, bere zuzendaria.

BA AL ZENEKIEN ?

...Jose Fresco Lizundia, «Santa Cecilia» bandaren zuzendaria izateaz gain, aurreko bandaren zuzendari-ordea ere izan zela?

...gasteiztar hau konpositorea ere izan zela, bere lan ezagunen artean «Araba» zortzikoa (San Prudentzioren zortzikoa bezala ere ezagutua) dagoela?

... bere beste lanen artean «Euskaria» eta «Gasteiz» izeneko obrak daudela?

... bere andrea Emilia Zala eta bere alaba Blanca Fresno ere pianojole ezagunak izan zirela mende hasieran?

zara ?

tatuaia nola geratuko litzatekeen ikusteko. Ondoren orratzdun tresna bat erabiliz marrazkia egiten hasten da. Tresna horrekin hamahiru orratz erabil daitezke marrazkia egiteko, guztiak batera azala ziztatzen dutelarik.

Normalean marrazkiaren ingurunea tinta beltzez egiten da hondoa beste koloretako tinta batzuez egoki osatuta gera dadin.

Tatuaia egin aurretik erabili behar diren tresnak arras esterilizaturik egon behar dira azalak inolako kalterik ez zoldurarik har ez dezan. Dena dela, tatuaia ez dira kaltegarriak baina zenbait jendearengan alergiaren bat sortu dezakete.

Tatuaiei egileek diotenez, lan mota hau artetzat jotzen dute, beraiek ere sormena eta irudimena erabiltzen baitute, margolarien antzera.



GARNICA

FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK

Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73



Pasa den hilabetean hamabi kirolari euskaldunek hegazkin bat trontza, zaku, aizkora eta abarrez beterik hartu zuten Australiarako bidean. Herri kirolari hauek munduko txapelketara joan ezezik Australian zehar zenbait erakusketa egitera abiatu ziren.

Olatz Irizar

Herri kirolak gure mugez harantzago: AUSTRALIAN

JOSE LAUZURIKA ETA FERNANDO VELEZ DE MENDIZABAL arabarrak Australiatik etorri berri dira. Kirolari euskaldunen talde honetako partaide hauei poltsak desagiteko ere denborarik ez diegu eman, Australian gertatu eta ikusitakoa kontatzeko.

Txomin Ibarra bizkaitarra eta Ron Mahon australiarraren eskutik sortutako ekimena dugu bidaia hau. Txomin Ibarrek zenbait ezagun zituen Ausatralian

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfoa: 28 08 69

**SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK**



**GORETTI
ILEAPAINDEGIA**

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

Australiarrak, erresistentzia txikiagoa izan arren azkarragoak omen dira.

aspalditik, bertatik ekartzen baitzituen trontzak eta aizkorak. Ron Mahonek eskeintza berezi bat egin zion bizkaitarrari, euskal talde bat Australiara joatea aizkolari eta trontzalari munduko txapelketa bitartean. Australiako zenbait hiriburutan herri kirolen erakusketa bat egiteko aukera ere zabaltzen zitzaion talde honi. Euskal Herriko taldea puntapuntako zortzi kirolarik osatu zuten: hiru aizkolari, Amando Larrea, Unai Ibarra eta Eleder Ibarra; hiru trontzalari, Julian Larrea, Jose Lauzurika eta Fernando Velez de Mendizabal; harrijasotzaile bat, Joseba Sarasola eta Txomin Ibarra antolatzailea.

Bidaia hau egiteko kirolariek ez zuten inolako laguntza ekonomikorik izan Euskal Herrian. Australian berriz, dirudun batek egonaldia ordaindu zuen, Euskal Etxekoek, bitartean, gastuak hartzen zituzten bere gain.

Zerbait azpimarratzekotan, jendearen harreraz mintzatzen dira. Herri kirol talde hau ez da Australiara dihoan lehenengo euskal taldea, aurretik Mindegia aizkolaria eta Iñaki Gil harrijasotzaileak bertan egonak baitira. Dena den, australiarrek oraindik ere asko harritzen dira euskaldunak kirola egiten ikustean. Euskaldunen indarra eta erresistentzia dela eta.

Bidaia honetan euskaldunak australiarrengandik asko ikasi dutela aitortzen dute, hauek erresistentzia txikiagoa izan arren euskaldunak baino azkarragoak omen direlako. Hemendik aurrera zenbait euskal herri kirolarik

australiar kutsua izanen dute, eta australiarrek ere euskaldunengaitik ikasi zutelakoan gaude.



Foster munduko aizkolari txapelduna

Oso jende gutxi
daki, esate baterako,
munduko aizkolari
txapelduna
australiarra dela

Herri kiroletan ez gara bakarrak

EUSKAL HERRIAN betidanik pentsatu ohi dugu euskaldunak herri kirolaren munduan onenak garela. Euskal talde honek argi ikusi du hori ez dela horrela. Erresistentzia arloan onenak garen arren abiaduran gu baino bizkorragorik bada beste zenbait herrialdetan.

Sokatira munduan aspaldi konturatu ginen Euskal Herriaz gain, beste herrialde askotan kirola hau praktikatzen zela. Gainerako kiroletan ere antzeko zerbait gertatzen ari dela jakitun gara euskaldunok. Azken lau urteetan adibidez munduko aizkolari txapelduna Foster australiarra dugu. Trontzalariak Euskal Herrian ezezik Australian, Zelanda Berrian, Estatu Batuetan, Eskandinabian eta Ingalaterran ere daude.



Euskal Taldea

Mulumia
MASAIA - QUIROMASAIA
Kote Zubizarreta
Olagibel, 20 • Telefonoa 25 92 06



MARKO-JARTZEAK • POSTER ETA LAMINAK
Santiago kalea, 39
26 09 82

Aurtengo matrikulazioaren datuak dagoeneko kalean



Eskuartearen dugu, jada, hiri honen euskal gogoaren termometroetako bat: aurtengo aurrematrikulazioaren datuak. Gure haurrentzat nahi dugun etorkizuna da, zalantzarik gabe, gure helburuaren adierazlea: «Nolako oraina, halako geroa». Ereindakoa, zainduz gero eta «elementoek» galerazten ez badute, behintzat izango da jasoko duguna.

AURTENGO DATUAK, batetik, eta azken urteotako tendentziak, bestetik, dira lauki hauen agertzen direnak eta gure azaleko irakurketa egiterakoan, zorerrek hausnarketa sakonago bat egin dezazun nahiko luketen lerro hauek.

• **A eredia (%37,5).**

Beherakada: -%7,66

Sare pribatuak eutsi arren inoiz baino handiagoa izan da aurtengo beherakada. Orain arte urteroko bi-hiru puntutako jetsiera ondoren aurtengoa hurrengo urteetako adierazle izango ahal da!

• **B eredia (%33,6).**

Berrindartzea: +%5,74

Joan den urteko ikastola askoren eredu aldaketaren ondorioz izandako beherakadaren ostean Gasteiz bezalako lekue-tan zubi izan daitekeen ereduak gora egin du orokorrean eta sare pribatuan eman da, hain zuzen ere, gorakada hau. Epeltasunaren adierazgarria hala ere

askorentzat? Segurtasunaren eskaria ote da? Euskal kontzientziaren gorantzako aldaketa? ...?

• **D eredua (%28,8).**

Aurrera darrai: +%1,83

Administrazioari eskerrak eman behar ote dizkiogu bere «lanean» ikastolen eredu- en hizkia aldatzen «laguntzerakoan» bere tokian jarri zuelako erabat euskalduna den eredua?

Urtero bezala ia 2 puntu gora eginez orain bost urte erdi marjinala izatetik herena izatera du hurrengo urteko helburua.

• **Eskaera eta eskeintza.**

A ereduaren eskatu diren baino askoz ere plaza gehiago eskeini diren bitartean B eta D ereduaren hiritarrok eskatutakoak baino gutxiago atera dituzte bai Administrazioak kasu batean zein ikastetxe pribatuak jabeek, bietan. Galga lana, azpi lana, nahia, prebisio falta,... Zer ote da?

• **Eskola publikoan A eredua** desgertzeko zorian dugun bitartean (hala bedi!), sare berau da, batez ere, hiri honetako haurrak euskalduntzen dituen. Eta honi esker dirua.

Non jo behar da aldaba? Noiz konturatu dira bere etorkizuna euskararekin batera doala eta bere indarrak euskarazko ereduak bultzatzen jarri behar dituela (jantokiak, zerbitzuak, ... kalitatea)?

QUOSQUE TANDEM...?

• **Sare pribatuak gogor** eusten dio A ereduari. Zergatik ordea? Jendearen eskaria soilik? Ikastetxearen helburua? Ezintasuna? Zer ote?

Azken urteotan izan duen gorakada garbi dago ikastetxe gehienetan jarri duten B ereduari esker eman dela eta kasu askotan gela hauek betetzen diren bitartean A eredukoetan zuloak ikusten hasi direla. Pozgarria eta adierazgarria da aldaketa hau. Apustu indartsuagoa eskatu beharko litzaioke, hala ere, euskararen alde.

• Herenkako banaketan ari gara sartzen. **3 haurretatik ia 2 euskal ereduaren**


matrikulatu dira. Ez dira, ez, alferrika-koak izan GEU elkarteak, EKB-k eta hainbat eta hainbat ikastetxe, guraso, ikasle eta irakaslek eginiko lanak eta kanpainak. Eta hala beharko hurrengo urteotan gora egingo badute euskarak eta euskal ereduak.

Poztekoak dira aurtengo emaitzak eta itxaropentsua azken urteotako bilakaera. Zoriondu beharrean gaude «Etorkizuna euskaraz dator» bereganatu eta egia bihurtu nahi duten guraso guztiak.

Argi ibili behar dugu, hemen ere, zein den etsaia, zein bidea eta zein helburua ondo bereizten eta tokian tokiko lagun eta arerioak ezagutuz **tinko eta goxo** jarraitu atsedean gabeko maratoni honetan. Azken batean «euli gehiago erakartzen ditu ezti tanta batek ozpin upel batek baino».

Xabier Galarraga
GEU elkarteak kidea

3 urteko umeen matrikulazioa Gasteizen



ereduak	A	B	D	X
URTEAK				
1988	49,67	44,06	4,81	1,44
1989	51,97	42,6	4,66	0,76
1990	50,9	40,79	7,14	1,16
1991	44,04	47,34	8,14	0,46
1992	42,18	47,77	10,03	-
1993	45,16	27,86	26,97	-
1994	37,5	33,6	26,8	-

	PUBLIKOA	PRIBATUA	OROTARA
	%	%	%
A	217	470	687
B	248	368	616
D	474	55	529
X			
	939	893	1832
	56,99	48,74	100

HONTZA Gazte musika

Bajo Ulloa • Gasteiz • BARRICADA •



«**ASTE SANTUAN**, oporretako pakea aprobatxatu nahian, Barricada taldeko mutilak hurbildu zitzaizkigun Gasteiza. Bisitaren karia ez zen izan oraingoan kontzertu bat antolatzea, ez ziren bakarrik etorri. Disketxeko buruak eta Bajo Ulloa zinegile gasteiztarra izan zituzten lagun. Helbura: bere diska berriaren bideo-klipa grabatzea.

Hori zen Bajo Ulloaren lana, eta beste hainbestetan egin duen bezalaxe, Gasteiz aukeratu zuen eskenatoki, baina ez gure hiriko edozen bazter, Gaztetxea eta La Paz kalea baizik.

Zine-zuzendariak eta musika taldekoek aitortu digute elkarrekin gustora ibili direla. Bajo Ulloaren azken luzemetraia den «La Madre Muerta» filmak liluratu egin ditu Barricada taldeko kideak. Napar hauen

musikak, bestalde, harritu egiten du gasteiztarra. Gauzak horrela, giro ona sortuko zelako susmoa zuten denek.

Hiru egun behar izan zuten grabazio burutzeko. Lehengo bietan Gaztetxea erabili zuten, eta hirugarrenean hiri erdiko kaleak. Ordu asko izan ziren, lan hauetan erabili ohi direnak baina askoz gehiago. Baina azkenean bideo-klipak irudiak emango dizkio diskaren promozio-

zeregina beteko duen «problemas» abestiari.

Istoria oso sinplea da: instituzioen aldetik datozen kulturaren kontrako oztopo guztiak gainditzea. Halaxe ikusiko dugu bideoan: Gaztetxean burutzen ari zen kontzertua eragotziko dute. Gazteak, ordea, ez dira geldituko eta kontzertua aurrera ateratzeko modua bilatzen hasiko dira. Edozein leku izan daiteke ona musikarekin jarraitzeko, eta zergaitik ez hiri erdian?... kotxez eta jendez beteta dauden kaleetan?

Hor duzue bada laster ikusiko dugun bideoaren aurrerapena: Gaztetxearen aldeko erreibindikazioa, Barricadaren azken lana eta «La Araña» diskaren sustapenerako bideoa. Gozatu irudi eta musikarekin!

Joxemari/Txabi Arnal Gil

LIBURUAK



BIDE SEINALEAK

HAEE • Eusko Jaurlaritza

73 orrialde

Argitalpen Zerbitzu Nagusia
EUSKO JAURLARITZA

EUSKAL HERRIKO kale eta errepideetan ikus daitezkeen bide seinaleetako testuen euskal ordainak jasotzen ditu liburu honek. Bide seinale elebidunetan gaztelerara modu bakar batean agertzen den idatzia euskara oso era ezberdinetan ikusten dugu maiz. Horri irtenbidea ematea du helburu bateratze-saioa izan nahi duen liburu honek.




**SUKALDEKO
HALTZARIAK**

Manuel Iradier, 37
Tfnoa: 25 45 88
Faxa: 27 81 93
01005 - GASTEIZ



Cercas Bajas, 8
Telefona eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ

hAurRAk



OSA ITZAZU hiru lauki ondoko irudian, hiru marra kenduz

ZEIN KIROLEKIN elkartuko zenuke izen bakoitza ?

Laso

Konpa

M. Zabaleta

Fiz



9	8	7	6
8			7
7			8
6	7	8	9

ERDIKO LUKIETAN idatz falta diren zeretik eskunera beti 30 gerta dadin.

BURUA hAuSTeN


OSO GARRANTZITSUA !!

Sekretu txiki bat aitortu nahi dizugu. Badakigu orri hauek zeuk bete ditzakizula guk baino hobeto. Gordeta duzun komikia, ipuina, jokua, olerkia,... bidalguzu. Orri hauetan argitaratu dugu.

ERANTZUNAK

9	8	7	6
8	6	6	7
7	9	6	8
9	7	8	6

atletismoa
punta, M. Zabaleta: mendia, Fiz:
Laso: saskibaloia, Konpa: zesta-



UDABERRIA

elkartea

•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat

•Musika eskola
•Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

ikUSGAR' i

t i n t a t e g i a

Alfonbrak, mantak eta edredoia, narruzko arropak, berokiak eta lumazko arropetan espezialduak

DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIMENDI, 20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ



hAurRAk

Oskorriarekin dator
gorriskarekin doa
bisitari eguneroakoa

Mendi batean
kobazuloa,
mendiska bat
eta putzu parea.
Tristura unean
Putzuak betea.
Ba al dakizu,
igarle,
bere izena?

Gasteizen ikusi nuen
bai eta Agurainen;
Gipuzkoako sarreran bat
eta Arrigorriagan parea.



Ipuin antzekoa da,
eta atzekoz aurrera
animalia ezaguna.



ERANTZUNAK (ordenean)

Eguzkia • aurpegia • g • alegi-igela • motxila

ZER dela eta zer dela



LIBURU HAU jolas egin
dezazun pentsatuta dago.
Igarkizun bakoitza jolas bat da,
ezkutuan dagoen mezua
deszifratuz egiten dugun jolas.
Bakarka edo lagunekin une
atsegina igarotzeko modua.

Igarkizun bakoitza misterio
txiki bat da. Jolastuz aurkitu
behar dugun miseria.
Liburuan estilo eta gai
guztietako igarkizunak
aurkituzko dituzu.
Hizkuntzaren mundura,
naturara eta mila tokitara
eramango zaituzte liburu
honetako igarkizun eta
ilustrazioek.

ditare


UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

HEGOALDE
euskaltegia

Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 -
01005 GASTEIZ

Deportivo Alaves, bigarren mailara salto egiteko prest



Maiatza heldu da, eta horrekin batera azken urteotan bezalaxe, emozioa Mendizorrotzako harmailetara. Aurtengo Deportivo Alavesek marka guztiak apurtu ditu Ligan, eta zenbakiak bere alde azaltzen dira argi eta garbi. Horretan talde arabarra ez dute gainerako taldeek arduratu behar, orain arte bera izan da onena, eta horrela play-off-ean erakusten jarraitu behar du zelai gainean. Berdin da arerioa Getafe edota Las Palmas izatea, epaileak alde edo kontra jotzea... GEU GASTEIZ-ek Deportivo Alavesen zenbakiak sakonki aztertu ditu. Datozen orrialdeetan hau eta taldeko golegilea den Carlos Lasherasekin izandako elkarriketatxoa irakurri ahal izango dituzue.

Ismael Díaz de Mendibil

EUSKARA AHOTIK AHORA



KOLDO MITXELENA INSTITUTOA GASTEIZ

Ikastola utzita hainbat
buru hauste
institutoak daude
Gasteizen hainbeste
batetikan bestera
nahikoa kontraste
Hemengoak gerade
jator eta gazte
Koldo Mitxelenara
etorri zaitezte (bis)

Zortzi térditan sartu
hirutan atera
euskaraz mintzatzeko
baduzu aukera
Festak eiten ditugu
guk denok batera
egingo dizuegu
kristoren harrera
Etorri nahi baduzu
ez egin atzera

AURREMATRIKULA: maiatzaren 4tik 18ra arte
ESKABIDE GUZTIAK ONARTUKO DIRA

Carlos Lasheras Mendiak bederatzia txikitatik eraman du soinean. Berak badaki futbolearen beharrezkoak diren golak egiten, eta futbola golik gabe ez dela ezer. Liga ez da oraindik amaitu, baina beasaingarrak 25 gol egin ditu dagoeneko.



FUTBOLARIEN BIZITZA berezia izaten da, besteok parrandan ibiltzeko betarik dugunean, haiek etxean egon behar izaten dute atseden hartuz. Igandeetan jende "arruntak" jai duen bitartean, jokalariek asteko lan egunik gogorrena dauka. Horrexegaitik lasaitasuna igandeko ihardunaldiaren ostean dator.

Deportivo Alavesen: Carlos Lasheras = gol

Mendizorrotzako zaletu askok eta askok pentsatzen dute Carlos Lasheras gasteiztarra dela, baina ez da horrela. Carlos Beasainen jaio zen orain 28 urte. Ez da harritzekoa bestetik, zaletuak oker ibiltzea, aurrelariak urte asko baitaramatza gure artean. Beasainetik Gasteizera etortzeko arrazoia ikasketak izan ziren; Corazonistasen zegoela, Aurrera taldeak Olanarberantz eraman zuen Carlos gaztea. Horrek ez zuen luzaro iraun, Deportivo Alaves bere trebetasunaz berehala ohartu zen eta. Gauzak honela, Lasherasek bere burua Alaveseko harrobiaren fruitutza hartzen du, "Alaves bihotzean daramat. Betidanik nire taldea dela pentsatu dut, beste ekipo batzutan ibili naiz, Barakaldo, Aragon... Alabaina nire taldea hau da, eta neure hiria Gasteiz. Pentsa!, nire aita

erretiratzean, gurasoak ere Gasteizera etorriko dira".

Deportivo Alaves euskaraz

Aurtengo Deportivo Alavesen entrena-tzailea Jose Antonio Irulegi da, euskaldun bat Mendizorrotzako aulkitxoan. Aspaldidanik ez ziren Mendizorrotzan "Bizi, bizi" edota "aurrera" bezalako esamoldeak entzuten, baina denboraldi honetan, gehiegi izan ez bada ere, euskararen presentzia ohartu gara. Taldean bost euskaldun daude, hau da, Jose Antonio Irulegi entrena-tzailea, Xabier Manzisidor atezaina, Aitor Arregi ezkertia, zelai erdiko Iñaki Berastegi eta "Musti" Mujika. Beste batzuek ez dakite ezer, Toni defentsa granadatarak kasu, hala ere Irulegik euskara isuri egiten du

Txarli lagunentzat

Hala ere Carlos Lasherasek dion bezalaxe, 90 minututan korrika egin eta gero, gorputzak ez du parranda egiteko sasoirik onena," partidua bukatzean, lasaitzen zara eta taldekoekin edota lagunekin zeozer hartzen duzu. Hala ere, hamarretarako ia futbolari guztiak telebista ikusteko prest egoten gara. Ez dut ezagutzen igandeko ihardunaldiko jokalaririk onenak ikusten ez dituen jokalaririk". Lagunek Carlosi Txarli deitzen diote, Deportivo Alavesen aurrelariak bestalde, oso gustokoa du bere lagunekin ibiltzea, "aise tarteetan lagunekin egotea gustatzen zait, futbola psikologia ere baita, eta burua ondo izateko garagardo batzuk hartzea edota taldekoekin afaltzea ondo etortzen zaizu". Jateko orduan Lasheras

haragizalea da, "urak edo edalontzi ardo batek lagun". Berak Alaves taldea bihotzean darama, eta horren argitarako bere irrika azal digu, "Alavesekin lehenengo mailan egotea da neure ametsa". Bitartean bere hobbyei ere tarteaz uzten die, "niri gauza asko gustatzen zaizkit, zineman aintzinako filmeak gustokoak ditut, "zine beltza"-renak hain zuzen. Musikan, Queen eta Bryan Adams aipatuko nituzke, agian irakurtzea dut baztertuta. Egutero prentsari botatzen diot begirada, baina literatura...".

Hau da Carlos Lasheras, ez da Deportivo Alaveseko aldagelako liderra, baina bai taldeko golegilerik nagusia.

deportivos



kirolgaiak

Zure kirol- oinetakoak

Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33

Fax: 22 07 19

**zure euskal
LIBURUDENDA**

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

errikoia



KIROLAK

duten papera nekeza da, horra hor Madrileko Zamorano aurrelariaren inguruan sortu diren zurrumurruak. Carlosek honela azaltzen du, "Presionatzen bazaituzte, ez dago ezer egiterik. Lasai baldin bazaude ordea, golak ohartu gabe etortzen dira bata bestearen atzetik". Gure gaurko elkarriketatuak Papin aurrelari frantsesa miresten du, Estatuko Ligan Claudio du gustoko, baina Milaneko aurrelaria munduko golegilerik onena dela uste du. Lasheras ez da Papin, baina badute nolabaiteko antzarik, biak azkarrek eta azken metroetan barkatzen ez duten horietakoak baitira.

oharkabeen. Carlos Lasheras euskara galdu duten horietakoa dugu, "txikitan ikastolara nihoan Beasainen, baina orain ulertu baino ez dut egiten. Beasaingo lagun guztiak, ama eta amama euskaldunak dira. Nik berreskuratu nahi nuen, baina Empresarialak hasi nintzen ikasten, eta badakizu...".

Aurten bai!

Taldeko etorkizunari buruz galdetu diogunean, aurrelariak argi ikusten du;

"taldea joan den urtekoa baino hobea da, eta hori oso ona zen. Igotzeko aukera gehiago ditugula uste dut. Kalitate handia dago eta tematiagoak gara iaz baino. Nire iritziz, igotzea ez da lan erraza, zorteak ere zeresan handirik baitu, hala eta guztiz ere, geuk bigarren mailako talde askok, Eibarrek edo Bilbao Athletic-ek esaterako, baino ekipo hobea dugula uste dut. Zaila, igotzea da".

Aurrelari eta atezainek zelaian betetzen

Hortaz, Play-off-a etortzeaz dago, guk artikuluz hau idatzi genuen unean ez genekizkien zeintzuk ziren Alavesen arerioak, baina ez zen garrantzitsuen, Deportivo Alavesek dakien bezala jokatzeko badu, ez duelako etsairik. Arabarrei laguntzeko Mendizorrotza jendez gainezka egongo da, eta helburua lortzen badute Andre Mari Zuria Plaza egun inportanteen itxura hartuko du berriz.

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



**LURRALDEKO
HARAGIAK ETA GOI
MAILAKO
TXARKUTERIAN
ESPEZIALDUA**

ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

Etxeko odolkiak
AIZPEOLEA
Lurraldeko haragiak
Etxeko txorizo, gazta eta
pateetan espezialduak

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA**
HARATEGIA



Gure Lurraldeko haragi
samurrak.

Idi, zekor, txahal, arkume
eta abar.

Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3

Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3

GASTEIZ




JOSEBA
HARATEGIA

Gure lurraldeko zaldti ta
muxalen haragitan
espezialdua.

Aukerarik zabalena
kalitaterik onena

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



Aurtengo Deportivo Alavesen markak

Golegileak: Carlos Lasheras: 25 gol / "Musti" Mujika: 8 / Alex:6. Une honetan Carlos Lasheras Bigarren "B" Mailako golegile nagusia da Gimnastica de Torrelavegako jokalaria den Julio Engongarekin batera. Hala ere, Badago haiek baino gol gehiago sartu dituen jokalaria, Barcelonako Romario hain zuzen (27 gol). Dena den Deportivo Alavesek ez du honelako aurrelari golegilerik izan aspaldidanik.

Jose Antonio Irulegik gehien erabili dituen jokalaria: Aitor Arregi (3.060 minutu) / Alfonso Nuñez (2.919 m.) / Peio Matxon (2.880 m.) / Roberto Toledo (2.869 m.) / Toni (2.790 m.) / Eladio (2.759 m.).

Txartelak: Aitor Arregi:10 txartel hori / Roberto Toledo:10 / Manu Muñoz:10.

Hamaikako ideiala: Alfonso Nuñez, Roberto Toledo, Matxon, Toni, Arregi, Manu Muñoz, "Musti" Mujika, Eladio, De La Fuente, Lasheras eta Alex.

Aurkako golak: Alfonso Nuñez-i 12 gol sartu dizkiote 33 norgehiagoketan. Lehenengo Maila, Bigarren Maila eta Bigarren "B" Mailako talde guztiak kontutan hartuz, gol kopururik txikiena jaso duen atezaina da. Sailkapen honetan bigarrena Deportivo de La Coruña-ko atezaina den Liaño dugu (18 gol).

48 minutu eta 21 segunduko tarte bakoitzean gol bat sartzen du.

190 minutu eta 31 segunduko tarte bakoitzean gol bat sartzen diote.

Goleadak: D. Alaves 8-Baskonia 2 / Endesa Andorra 0-D. Alaves 5 eta D. Alaves 6-Utebo 0.

1-0 edo 0-1 emaitza 11 aldiz errepikatu ditu.

Play-off-ean aurki ditzakeen arerioak: Salamanca, Getafe, Orense, Langreo (I. taldea), Manlleu, Levante, Hospitalet (III. taldea) eta Las Palmas, Recreativo de Huelva eta Jaen (IV. taldea).

Futbol estataleko maila guztiak kontutan hartuz:

Deportivo Alavesek puntu gehien lortu dituen taldea da: 57 puntu.

Positibo gehien dituen ekipoa: 21 positibo.

67 aldeko gol ditu. Alde honetan bigarrena dugu Salamancarekin batera. Aurreneko postua Barcelonarentzat da: 77 gol.

Kontrako gol gutxien jaso dituen: 17 gol.

Etxeko partiduetan:

45 aldeko gol ditu. Honetan bigarrena dugu Salamancarekin batera ere. Aurreneko postua Barcelonarentzat da: 47 gol.

Kanpoko norgehiagoketan:

Partidu gehien irabazi duen taldea da: 10.

Marka guztiak apurtuz, partidu bakarra galdu du.

Kontrako gol gutxien dituen hamaikakoa: 6 gol. Bigarrena Gramanet:10 gol.

Puntu gehien lortu dituen: 27 gol. Bigarrena Gramanet: 26 gol.

Galdu gabe 19 partidu jarraian daramatza.

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

**Cervecería
Alemana**

SALTIXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK

Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ

ALEX BARREDO. Gasteizen jaioa duela 27 urte. San Kristobal auzoko bizilaguna. Euskadiko Umoretisten Lehiaketan txapeldun 1986an.

BAGAUDE MAIATZEAN; Ama Birjinaren hilabetea, beraz. Garai honetan, jende askotxo joaten da elizara zein bazter guztietan antolatu ohi diren ekitaldi kristauetara. Erruz dira gainera!

Apaizak eta monjak etortzen zaizkigu gogora egunotan.

ESATERAKO, iaz meza entzuten ari nintzela gizontxo bat urreratu zitzaidan eta nire alboan eseri. Errena, begi-okerra, besamotza, gorra, gangosoa, konkorduna eta totela zen gizajoa. Halako batean, besteokin batera, honela hasi zen kantuan:

-El Señor hizo en mi maravillas...

Hori entzunda, hau esan nion:

-Isil zaitez, abesten segitzen baduzu, oraindik dudan fede apurra galduko dut eta!

ILDO BEREKO beste kontu bat ere datorkit gogora. Hain zuzen, bi monjatxo joan ziren iaz Gasteiztik Urola bailarara, maiatza bertan egin eta Loiolako Saindutegian gogotik errezatu asmoz. Trenean elkarren aldamenean zihoazen goxo-goxo bi monjatxoak. Ondoan fardel txiki bat zeramaten. Geltoki batean gizon bat igo zen trenera; nora joan zen esertzera eta bi monjen aldera, fardel txikia zegoen lekura, hain zuzen ere. Hori ikusita, monjek hau esan zioten oihu bizian gizonari:

-Aizu, kontuz arraultzekin! Arraultzak! Kontuz ibili arraultzekin!

Bi ahizpatxoan algarak harriturik, honela mintzatu zen gizona:

-Barkatu, ez nekien arraultzik zeneramatenik!

Monjek honela erantzuten zioten gero:

-Ez, guk ez daramagu arraultzik, gizona, orratzak baizik! Beraz, bada-kizu, kontuz ibili eta ez eseri edozein lekutan, badaezpada.

BESTALDE, egunotan jende mordoskada polita ibiltzen da konfesalekuz konfesaleku apaizari bere pekatutxoak aitortzen. Horrelako gisan ari zen neska bat dakargu hizpidera. Hain zuzen, neska hori honela hasi zitzaion apaizari:

-Agur Maria guztiz garbia.


-Pekaturik gabe sortua.

-Maiteminduta egotea dut pekatu.

-Baina, maiteminduta egotea ez da pekatua, nire alabatxo maitea.

-Bai, badakit, baina... zu zaitut maite, ez beste inor. Uste al duzu salbatuko naizela?

-Gaur salbatuko zara funerala arratsaldeko zazpitan izango dudalako, bestela zure aitak ere ez zintuzke salbatuko.



DENBORAPASA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	P	I	P	A	O	N		B	A	I
2	E	R	I		R	A	T		R	R
3	R	A		I	U		E	K	I	A
4	R	U	A	N	D	A		G	A	
5	E	N				D	O	R	P	E
6	T		A	Z	T	I				N
7	X	A	B	O	I		I		E	A
8	I	G	E	R	R	I		L	U	R
9	K	U	R	U		A	R	A	B	A
10	O	R		A	U	K	E	R	A	K

ZE HARRETARA

1. Arabagko herri bat. Baieztatzeko. 2. Gaiso. Norat atzikia. Konts. bikoltza. 3. Nora atzikia. Alderdi politiko bat. Eguzkia. 4. Afrikako herrialde bat. Joan aditzaren erroa. 5. Noren (Pl.). Trakets. 6. Tarragonako autoetan. Aztikeriak egiten dituen. Nitrogenoa. 7. Garbiketarako. India. Bizkaiko kostaldeko herri bat. 8. Susmoa hartu. Euskal hiztegi entziklopédiko bat. 9. Txori mota. Gure herrialdea. 10. Zakur. Oportunitateak

GOITIK BEHERA

1. Ziza. 2. Berdin jarraitu. Agurtzeko. 3. 1416. Lehena. (Ald.) Ezta pentsatu ere. 4. Lehena. (Ald.) Lehen pertsona. Lur-azala. 5. (Ald.) Bost pezeta. Kamioi handietan. Bokale. 6. Nafarroako autoetan. Erne. (Ald.) portu. 7. Infusio mota. Oxigenoa. India. Musika nota. 8. Boroa. Atziki. Bizkaieraz, gehiegi. 9. (Ald.) Pairatu aditzaren infinitiboa. bizkaiko herri txiki bat. 10. Garoa, iratzea. Udaberrian etortzen diren txori batzuk.

LETRA ERORI

GOIKO lerroetan, Euskal Idazle ezagun baten esaldia zegoen. Zorritzarrez beheko lerroetara erori (zutabez aldatu gabe) eta desordenatu egin da. Pista bat emango dizuegu. Idazlea 1963an jaio zen Urrestilan.

ERANTZUNAK

LETRA
ERORIAK
MUNDUA EZ DUTE
HEROEK EGITEN EROK
BAIZIK • PAKO ARISTI

K	A	V	K	E	U	A	O	R		10
B	V	K	U	K	K	U	K	K		9
R	L	I	R	E	E	R	E	E		8
E	A	B	O	I	O	X	A	B		7
N										6
E										5
R	A	T	R							4
I	P	A	O	N						3
										2
										1

	M	U	N	D	U	A		E	Z		D	U	T	
E		H	E	R	O	E	E	K		E	G	I	T	
E	N		E	R	O	E	K		B	A	I	Z	I	
K		P	A	K	O			A	R	I	S	T	I	
K			E	K	O	A		R	Z		T	I	T	
	N	H	A	D	O	E	A		I	E	I	U	I	
E		U	N	R	U	E	E	E		A	D	I		
E	M	P	E	R	O			K	K	B	S	G	Z	T

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

**DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA**

Telefona: 23 17 13

EUSKALDUNON

J A I A 94



EUSKALDUNON
Egunkaria

MAIATZAK 15 AMASA-BILLABONA

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK - KUKUBILTZO -
DULTZAINEROAK - TXARANGAK - HAUR JOKOAK - DANTZARIAK -
HANKAPALOAK - ERRALDOIAK - TRIKITILARIAK - TXALAPARTARIAK -
BERBENA - ESKOLAKO UME LASTERKETA - HERRI KIROLAK - GAZTEEN
ESKUPILOTA TXAPELKETAREN FINALA - GAZTEEN JOKO GARBI
TXAPELKETAREN FINALA - HERRI BAZKARIA - MAIXA ETA ITZIAR -
ROCK KONTZERTUA: TAPIA & LETURIA - ANJE
DUHALDE - EXKIXU - BERTSOLARI GAZTEAK

*ez
ahaztu!*
maiatzan...

8an Senperen
HERRI URRATS

15an Amasan
**EUSKALDUNON
EGUNKARIAREN FESTA**

29an Bilbon
IBILALDIA

BERTSO SAIOA

IGOR ELORZA, ION MAIA eta
XIGOR ENBEITA
Gai jartzailea: OIANE PEREA
MAIATZAK 7, Eguerdiko
12etan Europa Gizarte Etxean

☆☆☆☆☆☆

GASTEIZ EUSKALDUN ELKARTEAREN BATZARRA

Maiatzak 27, Ostiralez,
7,30etan Euskadiko kutxak
Dato kalean duen aretoan.
Ondoren bertso afaria Egaña
eta Soroزابalekin.

☆☆☆☆☆☆

EUSKARAREN ASTEA AGURAINEN

Maiatzaren 9tik 15ra.
Maiatzaren 5an, arratsaldeko
8retan «Carniceria» kaleko
kultur etxean **EUSKARA
ARABAN** hitzaldia. Koldo
Zuazo • Julen Arexolaleiba •
Iñaxio L. de Arana.
Aste osoan zehar

**ERAKUSKETA: Aguraingo
euskara.** Siadecok egindako
lana. **DANTZA PLAZAN**
FOLKLORE AKADEMIAREN
eskutik
Larunbatero 7,30etan
Enparantza Berrian

☆☆☆☆☆☆

IKAPERIA

Maiatzak 28 arratsalde, Plaza
Berrian 5etatik aurrera,
artisauek, kirolak, txapelketak,
txarangak, jolasak eta abar
luze bat.

☆☆☆☆☆☆

IDIAK

INDARRA elkarte, MANUEL
IRADIER dantza tailerra eta
FOLKLORE AKADEMIA
Sarrerak: 1.000, 800 eta 500
pta.
Maiatzak 14, Arratsaldeko
8,30etan Principal Antzokian

☆☆☆☆☆☆

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN

programan parte hartzeko epea
dagoneko irekia.
Euskara ikasten ari direnei (6. urratetik
aurrera) edota euskalkiren bat
ikasteko interesa duenei zuzenduta,
beti ere 18 eta 35 urte bitartekoak
izango direlarik.
Hilabetekoak, uztailetik irailera,
Prezioa: 20.000 pta

Interesatuok izena eman Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Ordezkaritzetan, maiatzaren 16a
baino lehen.



EUSKADI LITERATURA SARIAK epea irekia

«Pedro Axular» Saiakera
2.650.000 pta

«Lizardi» Olerkigintza
1.350.000 pta

Interesatuok informazio gehiago
lortzeko edota lanak entregatzeko
tokian tokiko Kultura Lurralde
Ordezkaritzara joan zaitezke.

Aldez
aurreko
txanda
eskatzeko
dei ezazu
Arabako
Foru
Aldundiaren
telefono
honetara



**Bada biderik
errenta aitorpena
EUSKARAZ
egiteko**

13 97 47



GEU GASTEIZ EUSKALDUNA

ANBOTO

**TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA**

Kutxillera, 29 - Tfnoa. 25 00 93 -
01001 GASTEIZ



EUSKADI GAZTEA, SEÑALE ON!!

Astelehen-ostiral

- 07:00-10:00 **HASI-ORDUKO-POP**
Mari Jose ORIA
- 10:00-14:00 **IRRATI-FORMULA**
Irantzu KARRERA
- 14:00-18:00 **IRRATI-FORMULA**
Joseina ETXEBERRIA
- 18:00-22:00 **IRRATI-FORMULA**
Susana MUJICA
- 22:00-24:00 **GAUAREN BEROAN**
Riki AMONDARAIN

Larunbata

- 07:00-10:00 **HASI-ORDUKO-POP**
Mari Jose ORIA
- 10:00-14:00 **TOP-GAZTEA**
Joseba IRIONDO
- 14:00-18:00 **IRRATI-FORMULA**
Ainhoa URKIA
- 18:00-22:00 **IRRATI-FORMULA**
Garikoitz UDABE
- 22:00-24:00 **GAUAREN BEROAN**
Riki AMONDARAIN

Igandea

- 07:00-10:00 **HASI-ORDUKO-POP**
Eli LEGARDA
- 10:00-14:00 **TOP-GAZTEA**
Joseba IRIONDO
- 14:00-18:00 **IRRATI-FORMULA**
Ainhoa URKIA
- 18:00-22:00 **IRRATI-FORMULA**
Garikoitz UDABE
- 22:00-24:00 **KANTAITA**
Olatz ZUGASTI

Eta gainera, **GAZTE GARA GAZTE**, informazio, entretenimendu eta zerbitzu-tarteak, gazteok interesko dituzuen gai guztien berri, egunerokotasunaren haririk ez galtzeko.
Musika ugari eta ongi aukeratua!

SUKALDE TXOKOTIK



Makailua patatekin

Osagaiak:

- Makailua: hezurrik gabeko 6 zerra handi.
- Patatak: kilo bat.
- 12 goilarakada tipula xehekatu (perrexila).
- 12 goilarakada olio.

Makailu tortilla

Osagaiak:

- Arrautzak: 12.
- Makailua: 500 gr.
- Olio.

Nola egin:

Makailua zatikatu, ondo garbitu eta urez beteriko eltze batetan paratu. Makailua lodia bada uretan egon behar du 48 orduz; mehea izanez gero, berriz, 24 ordu aski izan daitezke. Bi aldiz aldatu ura, gehiagotan ez. Ondoren, uretan jarriko dugu berriro makailua eta su epeletan berotu. Ordu erdi beranduago, makailuaren eltzea sutatik

EUSKAL SUKALDARITZAN

hain erroturik dugu makailua dugu dastagai oraingoan. Milaka dira arrain goxo hori osagai nagusi duten platerak. Horietako bi agertuko dizkizuegu jarraian. On egin!

Nola egin:

Bota lapiko batean 12 goilarakada olio eta 6 goilarakada tipula xehekatu. Xerretan ebaki kilo bat patata. Erantsi hori eta perrexil apur batzuk lapikoan dagoenari, tipula frijitutakoan. Patatei eragin bitsadera batez eta gainezkatu dena. Patatok egosi eta gero, hezurrik gabeko 6 makailu zerra gaineratu eurak ere poliki poliki egos daitezen. Handik 15 minututara, perrexil xehekatu dexente hautseztatu gainetik. Horrenbestez, jateko gertu izango da.

kendu; hotz dagoenean, makailuaren ura iragaztontzitik pasa eta eltze txiki batetan ipini. Makailu zerrak ere plater batetan jarriko ditugu. Makailuaren alde zuria kendu, hezurrak bota eta azalak paratu makailuaren ura dagoen eltze txiki horretan (gero zopa egiteko erabil baitezakegu).

Zartagin batean lau goilarakada olio bota eta sutan jarri. Bero dagoenean, platerean ditugun makailu zerrak gehitu. Sardeska batez irabiatu. Handik bi minututara, kendu zartagina sutatik, banatu bere edukia bi zopontzitan eta gehitu seinu arrautz irabiatu. Osagai horiek erabiliz, bi tortila egingo ditugu jarraian.



Bacalao Giraldo

- Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatura - Zaldiaran - Gasteiz



MENDE- KUA

"EROA HAGO ALA?... ZEZEN PLAZAN
TIROKA HASI ZIÑEN, JENDEA ARRISKUAN
JARRIZ... HORREGATIK
UDALTZAINZATIK
KANPO GERATU HAIZ
... INOZOA!!!"

EROA, BAI, BAINO
NIK EZ... "TXEROKIREN"
KULPA IZANZEN ETA
ORAIN ORDAIN-
DUKO DU!



JE, JE,
HOR DAGO



JE, JE,
JE...



HONEK EZ DU
BEIN ER-
IKASIKO...

LOTSAGABE!
GAIZKILE!

ZINTZILIKATU
DEZAGUN PIRO-
MANOA!!

JE, JE, JE,
"FLANBE",
"FLANBE"



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
ZERBITZU OROKORRAK	ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA	Dato, 11	16 11 88	16 15 93
LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA	HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK)	Dato, 11	16 13 01	16 15 93
KULTURA		Machete plaza, z/g	16 12 75	16 12 76
O.K.U.S./DEMSAC	ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC)	Done Bikendi aldapa, z/g	16 12 40	16 12 51
HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA	EUSKARA	Espainia plaza, z/g	16 15 22	13 09 65
GIZARTE ONGIZATEA	ADMINISTRAZIO-ATALA	Espainia plaza, z/g	16 13 60	16 13 63
INFORMATIKA		Vera-Fajardo margolaria, 5	16 14 13	16 16 00
HEZKUNTZA	ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA	José P. Ullibarri, z/g	28 16 35	
	EL PILARREKO HAUR ESKOLA	Caracas, 6	22 94 99	
	F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA	F.J. Landaburu, z/g	28 35 45	
	HAURTZARO HAUR ESKOLA	Santa Maria kantoia, z/g	14 34 33	
	IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA	Astronomoak, z/g	28 44 95	
	OLARIZUKO HAUR ESKOLA	Dantzari plaza, 6	27 28 95	
	TXIMELETA HAUR ESKOLA	Ricardo Sacristán, z/g	22 46 34	
	SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA	Federico Baraibar, 17	28 82 25	
	TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA	Gasteiz hiribidea, 61	22 95 49	
	ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA	Nafarroako erreg., 16-B	28 94 49	



Lortu azkar zure TeleCaja Joven
ala honela geratuko zara!!!



Linea Gaztea

Caja Vital  Vital Kutxa

Etxebizitza erostekotan bazabiltza, negozioren bat zabaldu nahian edota kotxea erosteko edo oporrek egiteko kreditua eskatzeko asmotan... entzuidazu ala buruz behera ibiliko zara. Zatoz Caja Vital Kutxa Joven-era. Guretzako bereziki dituzten abantailak aprobetxatzeko aukera daukazu. Egin esandakoa, ni bezain zintzilik geratu nahi ez baduzu.